DEBA BERRI

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba



Urria-Octubre 2017 • 9. zenbakia

# Hilerri berria Artzabalen

## Nuevo cementerio en Artzabal

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala
Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.
Ale kopurua/Ejemplares: 2500
L.G./D.L.: SS-918-2012

## AURKIBIDEA - ÍNDICE

Hilerri berria Artzabalen / Nuevo cementerio en Artzabal ........ 3
Deba-Mutriku errepidea hobetzeko obrak ........ 6
Obras de mejora de la carretera Deba-Mutriku
Zergatik ez iritsi %70era? / ¿Por qué no llegar al 70%? ........ 8
Deba ibaiaren Paisaiaren Ekintza Plana ........ 10
Plan de Acción del Paisaje del río Deba
Garbiketa eta mantentze-lanen kanpaina ........ 11
Campaña de limpieza y mantenimiento
Gure herriaren memoria historikoa berreskuratzeko proiektua ........ 12
Proyecto de recuperación de la memoria histórica
2017ko aurrekontuak / Presupuestos 2017 ........ 14
Gizarte laguntzak / Ayudas sociales ........ 15
Debako Berdintasun Sailaren jarduera-ardatzak ........ 15
Ejes de actuación del Departamento de Igualdad
Birgaikuntza eta hobekuntza lanak 3. adinekoen zentroan eta gizarte-zerbitzuetan ........ 16
Remodelación y mejoras en el Centro de 3ª Edad y Servicios Sociales
Erlojuaren kanpai-egitura konpontzea ........ 18
Reparación de la estructura de las campanas del reloj
Klaustroaren ondoko mendi-mazela garbitzea ........ 18
Limpieza de la ladera del claustro
Done Jakue bidearen segurtasuna hobetu eta balioan jartzea ........ 20
Puesta en valor y mejora de la seguridad en el Camino de Santiago
Erabilera turistikorako etxebizitzak eta logelak ........ 22
Las viviendas y habitaciones para uso turístico
Flyscharen ibilbideko seinalizazioa hobetzen ........ 22
Mejora de la señalización de la Ruta del Flysch
Hondartzako lehen lerroa / Primera línea de playa ........ 24
Udaleko eta bere Patronatuetako langile zerrendaren ........ 25
azterketa / Estudio de la plantilla de trabajadores del Ayuntamiento y sus Patronatos
Agirre jauregiko altzariak eraberritzea ........ 26
Restauración del mobiliario del Palacio de Agirre
Praileaitz haitzuloa / Cueva de Praileaitz ........ 26
XII. Tene Mujika beka / XIIª beca Tene Mujika ........ 27
"Deba 100 hitzetan" / "Deba en 100 palabras" ........ 27
Estalitako pasealekua: azoka bat baino gehiago ........ 28
Paseo Cubierto: algo más que un mercado
Itziarko Entitate Txikiari eta bere etorkizunari buruz ........ 29
Sobre la Entidad Local Menor de Itziar y su futuro

Uda igaro eta udazkenean sartu garenez, berriro heldu nahi diegu bukatu gabeko obra batzuei; kasu honetan, deserosoak bezain beharrezkoak.

Hilabete honetan Astillero-Osio kaleetako obrei hasiera emango zaie.Konplexutasun handiko obrak izango dira, baina guztiz beharrezkoak dira inguru horretako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Astillero kalea oinezkoentzat bihurtuko da eta, beraz, trafikoari itxia egongo da, kale horretako eraikinetako garajeen jabeentzat izan ezik.

Udazken honetarako, itsasadarraren gaineko harrizko zubia hobetzeko eta egokitzeko obrak hastea ere aurreikusita dago. Uraren, ur zikinen, gasaren edo elektrizitatearen hodiak lurperatu ondoren itxura berria bereganatuko du zubiak, eta horrez gain, segurtasun gehiago ere bai.

Halaber, berriki jakin dugu, azkenean, datorren urteko udazkenean hasiko dituztela Deba-Mutriku errepideko obrak, oinezkoentzako pasealekua barne.

Urte-sasoi honek albiste berri on gehiago ekartzea besterik ez dugu espero, eta Udalean buru-belarri ari gara lanean, hala izan dadin.

Pasado ya el verano y con la entrada del otoño retomamos la ejecución de las obras pendientes; en este caso, tan incómodas como a la vez esperadas.

Este mes de octubre se iniciarán las obras de las calles Astillero-Osio. Serán unas obras complejas, pero absolutamente necesarias para la mejora de la calidad de vida de los vecinos de la zona. Astillero se convertirá en calle peatonal y cerrada al tráfico, salvo para quienes posean garajes en los edificios de dicha calle.

También está previsto que este otoño se inicien las obras de mejora y adecentamiento del puente de piedra sobre la ría. El soterramiento de los tubos de agua, de aguas fecales, gas o electricidad darán una nueva imagen al puente, y a la vez más seguridad.

También este otoño nos ha traído la buena noticia de que, por fin, el próximo otoño comenzarán las obras de la carretera Deba-Mutriku, paseo peatonal incluido.

Sólo esperamos que de nuevo esta estación nos traiga nuevas y buenas noticias; desde este Ayuntamiento estamos trabajando para que así sea.

# Hilerri berria Artzabalen
## Nuevo cementerio en Artzabal

**Amillagan hirigintza-garapena gauzatu dadin, beharrezkoa da hilerri berri bat eraikitzea.**

**El desarrollo urbanístico de Amillaga requiere la construcción de un nuevo cementerio.**



Artzabalen hilerri berri bat eraikitzeko proiektua prestatzen ari da Udala. Kokapen berrirako, zentral elektrikoaren eta Mendarora doan Bide Zaharraren gainean dagoen mendimazela aukeratu dute.

Debako Udalak hilerri berri baten premia duela lehenago ere egiaztatu izan dute aurreko Udalbatzek, eta hala, 1985. urterako, antolamendutik kanpo geratua zen gaur egun duguna. 2007. urtean Hirigintza Arauak onetsi zirenean berretsi egin zuten erabaki hori, Amillagako mendi-mazelan eta Osio-Agirretxe-Elizburu Amillaga bidean hiri-garapen bat egitea erabaki baitzuten dentsitate intentsiboko Bizitegi Eremu gisa.

1993. urtean Udalak zenbait aukera aztertu zituen: Artzabal, Amillaga ibarraren behealdea, Antzondo harrobia, San Roke baselizaren inguruak eta Itziarkoa handitzea, eta azkenean, lehenengoa aukeratu zuen. 1997. urtean Artzabalgoa diseinatzeko lehiaketarako deialdia egin zuten, eta egungo udal arkitektoak, Luciano Pagaegik, irabazi zuen, baina ez zen aurrera atera.

El Ayuntamiento está proyectando la construcción de un nuevo cementerio en Artzabal. Para la nueva ubicación se ha elegido la ladera situada encima de la central eléctrica y del Camino Viejo a Mendaro.

La necesidad de un nuevo cementerio para Deba ya había sido constatada por anteriores Corporaciones, y en 1985 el actual ya había quedado fuera de ordenación. Esta decisión fue reforzada con la aprobación de la Normas urbanísticas en el año 2007, en las que se decidió el desarrollo urbano de la ladera de Amillaga como Zona Residencial de densidad intensiva, y del vial Osio-Agirretxe-Elizburu-Amillaga.

En 1993 el Ayuntamiento estudió posibles alternativas: Artzabal, el fondo de la vaguada de Amillaga, cantera de Antzondo, alrededores de la ermita de San Roque y la ampliación del de Itziar, y optó por la primera. En 1997 se convocó un concurso para el diseño del de Artzabal, que fue ganado por el actual arquitecto municipal Luciano Pagaegi, pero no se desarrolló.



Elizburuko etxebizitza-eraikuntza aurrera doanez gero eta Amillagako garapena denboraz aurreikusi eta erraztu behar denez gero, beharrezkoa da egungo hilerria ixtea. Udalak hilerri berria Artzabalen kokatzea erabaki du azkenean, eta arkitekto bera ari da hori diseinatzen. Kokapen berri hau gomendagarri egin duten arrazoiak, hain zuzen ere, Debako hirigunetik hurbil egotea, bertaraino oinez joan ahal izatea eta gaur egun Deban ez ditugun zenbait zerbitzu barneratzea izan dira, hala nola beilatokia eta agur egiteko ekitaldi-aretoa, eta ekitaldi horiek izaera zibila nahiz erlijio-izaera eduki dezakete.

Azken urte hauetan aldaketa bizkor bat gertatzen ari da gizarte-ohituretan hil ondoren gorpuei ematen zaien tratamenduari dagokionez, eta hala, errausketek nabarmen egin dute gora eta gorpu osoko lurperatzeak, berriz, asko murriztu dira. Gaur egun, urtean hogeita hamar bat heriotza izaten dira batez beste, eta horietatik %70 erraustu egiten dira. Hilerri berria gizartearen eskaera horretara egokituko da, eta hala, hildakoen errautsak bilduko dituzten errautsontziak kokatzeko moduan diseinatzen ari dira, nahiz eta lurpeko panteoiak eta horma-hobiak ere izango dituen.

Horrexegatik, hilerri mota berri honek hasieran aurreikusitakoa baino dezentez azalera txikiagoa beharko du, txikiagoak izango dira lur-mugimenduak, baita beharrezko obrak ere, eta horrenbestez, hori eraikitzeko aurrekontua ere nabarmen murriztuko da.

Lurperatzeko hainbat modu aurreikusten dira:

- Lurpeko hilobi edo kolunbario txikiak, soropilez estaliak. 73 izango dira, 438 errautsontzirentzako lekuarekin, eta bakarrik errautsak eta hezur-hondakinak gordetzeko erabiliko dira. Araututako tamaina izango duen hilarri bat edukiko dute.
- Lurraren gainetik goratzen diren moduluak edo kuboak, gorpu osoentzako 72 horma-hobi dituztela.
- Panteoi gisako hilobiak gorpuentzat, lur azpian erabat, eta hauek ere soropilez estaliak egongo dira, burualdean hilarri bat dutela.
- Hezurtegia, hobi komuna eta lurperatze orokorrak egiteko leku bat, edo gertakari garrantzitsuren bat oroitarazteko elementuak jartzekoa.

Debido a que la construcción de viviendas en Elizburu va avanzando y a que se debe prever y facilitar con tiempo el desarrollo de Amillaga, es necesario clausurar el actual cementerio. El Ayuntamiento ha optado definitivamente por ubicar el nuevo en Artzabal y el mismo arquitecto lo está diseñando. Las razones que ha recomendado este nuevo emplazamiento han sido la cercanía al núcleo urbano de Deba, la posibilidad de desplazarse a él caminando y la de incorporar servicios que hoy no se disponen en Deba, tales como velatorio y salón de actos de despedida, que pueden ser de carácter civil o religioso.

En los últimos años se está produciendo un cambio muy rápido en las costumbre sociales respecto al tratamiento de los cuerpos tras el fallecimiento, con un aumento muy acentuado de las incineraciones y reducción de los enterramientos de cuerpo completo. Actualmente, se producen de media treinta fallecimientos al año, de los que se incineran el 70%. El nuevo cementerio se adaptará a esta demanda de la sociedad y se está diseñando para acoger de forma mayoritaria urnas con cenizas de los difuntos, además de panteones bajo tierra y nichos.

Por ello, este nuevo tipo de cementerio va a necesitar una superficie notablemente inferior a la inicialmente prevista, serán menores los movimientos de tierras y las obras necesarias, por lo que el presupuesto de su construcción se reducirá de forma importante.

Se prevén varios tipos de tipos de enterramientos:

- Pequeñas sepulturas o columbarios bajo tierra que se cubrirán con césped. Serán 73, con capacidad para 438 urnas y se destinarán únicamente al alojamiento de ellas conteniendo cenizas y restos óseos. Dispondrán de una estela de tamaño regulado.
- Módulos o cubos que se elevan sobre el terreno con 72 nichos para cuerpos completos.
- Sepulturas tipo panteón para cuerpos, completamente bajo el nivel del terreno, que irán recubiertas también de césped, con una estela en su cabecera.
- Osario, fosa común y espacio para algún enterramiento conjunto o colocación de elementos conmemorativos de algún suceso significativo.

Mota bakoitzaren barruan lurperatze-unitate guztiak berdinak izatea lortu nahi da, batzuk besteen gainetik nabarmendu gabe, aurrerago finkatuko diren eredu, tamaina eta materialekin bat etorriz.

Hilobi gehienak lur azpian eta soropilez estaliak egongo dira, eta horrenbestez, hilerri berriak parke zuhaitzdun baten izaera edukiko du, han-hemenka barreiatutako hainbat hilarri ikusten direla. Hilerri berde bat izango dela esan daiteke, eta mendi-mazelaren goiko alderantz hedatu ahal izango da beharrezkoa izanez gero, betiere etorkizuneko erabilerekin eta ohiturekin bat etorriz.

Eraikin honek honako aretoak izango ditu: sarrera bat, bi beilatoki, agur egiteko ekitaldi-areto bat ehun lagun baino gehiagorentzako tokia duena eta hedagarria eta ekitaldi mota desberdinetara egokitu ahal izango dena, eta komunak. Sabai laua izango du, soropilez estalia, eta beraz, ingurunean egoki txertatua geratuko da.

Hilerri berriaren eraikuntza amaitu ondoren, hortik aurrerako ehorzketa guztiak bertan egingo dira, eta Amillagako hilerri zaharra irekia mantenduko da, lurperatzeak indarrean dauden bitartean. Epea igaro ondoren, pixkana-pixkana lurpetik ateratzen joango dira, eta gorpuzkinak Artzabalgo hilerri berrira eramango dituzte. Gorpuzkinen garraio hori ahalik eta sentikortasun eta errespeturik handienaz eta pixkanaka egin nahi da. Ziurrenik, Amillagako hilerria gutxienez beste bost urtez mantendu ahal izango da hilerri berria irekitzen denetik kontatzen hasita.

Aurreproiektu gisa kalkulatutako aurrekontua milioi eta erdi eurokoa da, baina dirutza horren parte bat berreskuratu egin daiteke Amillagan Udalak bere esku izango dituen eraikuntza-eskubideak salduz gero. Udalak 2017an idatzi nahi du exekuzio-proiektua, eta obra hori 2018. urtean esleitu, horretarako beharrezkoak diren baimenak izapidetu ondoren.

| | 2011 | | 2012 | | 2013 | | 2014 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itziar | Deba | Itziar | Deba | Itziar | Deba | Itziar | Deba | Itziar | Deba |
| ENTERRAMIENTO | 3 | - | 3 | - | 8 | 1 | 3 | - | 3 | - |
| PANTEÓN | 3 | 5 | 7 | - | 1 | 3 | 1 | - | 3 | 1 |
| NICHO | - | 13 | - | 9 | - | 14 | - | 10 | - | 8 |
| INCINERACIÓN | - | - | - | - | - | 6 | - | 20 | 3 | 28 |
| TOTAL | | 18 | | 9 | | 24 | | 30 | | 37 |
| | 24 | | 19 | | 33 | | 34 | | 46 | |



2. alternatiba - alternativa 2.

Se desea que dentro de cada tipo todas las unidades de enterramiento sean iguales, sin que unas destaquen sobre otras, de acuerdo con el modelo, tamaño y materiales que se establecerán.

La mayor parte de las sepulturas estarán bajo el nivel del suelo y recubiertas de césped, por lo que el nuevo cementerio tendrá un carácter de parque con árboles sembrado de estelas visibles. Se puede decir que será un cementerio verde, que se podrá ampliar hacia la parte superior de la ladera cuando sea necesario y de acuerdo con los usos y costumbres del futuro.

El edificio de servicio dispondrá de entrada, dos salas de velatorio, un salón para actos de despedida con capacidad para más de cien personas, ampliable y adaptable a distintos tipos de ceremonias y aseos. Tendrá techo plano y recubierto de césped por lo que quedará muy integrado en el entorno.

Una vez terminada la construcción del nuevo cementerio, todas las nuevas inhumaciones se realizarán en él y el viejo de Amillaga se mantendrá abierto mientras existan enterramientos vigentes, para progresivamente ir exhumándolos cuando haya transcurrido el plazo, y/o trasladando los restos al nuevo de Artzabal. Se desea realizar estos traslados de restos con la máxima sensibilidad, respeto y de forma progresiva. Posiblemente, el cementerio de Amillaga pueda mantenerse al menos cinco años contados a partir de la apertura del nuevo.

El presupuesto estimado a nivel de anteproyecto es de un millón y medio de euros, que se podrán recuperar con la venta de los derechos de edificación que le corresponden al Ayuntamiento en Amillaga. El Ayuntamiento desea realizar la redacción del proyecto de ejecución dentro de este año 2017, y poder adjudicar la obra en 2018, una vez tramitados los permisos necesarios.

# Deba-Mutriku errepidea (GI-638) hobetzeko obrak 2018. urtean hasiko dira

Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak, Markel Olanok, GI-638 errepidearen proiektua (Deba-Mutriku tartea) aurkeztean jakinarazi zuenez, bi herri horietako bizilagunok aspalditik esperotako nahia gauzatua ikusiko dugu datorren 2018. urtean, hasiera emango baitzaie bi herri horien arteko errepidea hobetzeko lanei.

11 milioi euroko aurrekontuarekin eta hamalau hilabeteko iraupenarekin lanak 2019ko neguan amaitzea aurreikusten da. Obra horien barruan sartuko da galtzadaren zabalera handitzea, Alkolea inguruan 80 metroko tunel zuzen bat irekitzea, bihurgune itxiegiak zabaltzea –Ipitxarrikoa, esaterako, olatu-hormaren ondoan– eta mendiari eusteko lanak egitea eta zuhaitzak landatzea arazo gehien ematen duten tokietan.

Halaber, onetsitako proiektu horrek bi metroko zabalera izango duen oinezkoentzako pasealeku bat egitea jasotzen du Ondarbeltz eta Mutrikuko sarreraren artean, eta zenbait tartetan pasealeku hori hegaldatua joango da; Zarautz eta Getaria herriak batzen dituen kostaldeko pasealeku panoramikoaren antzera. Ibilbidean barrena 18 aparkaleku egitea ere jasotzen da.

Hainbeste urtez desiratutako obra horrek sakrifizio txiki batzuk egitea eskatuko digu, lan horiek iraungo duten hamalau hilabeteetatik bederatzitan trafiko-mozketak egin beharko baitira ibilgailuak txandaka igaroaraziz, eta bost hilabetez gutxi gorabehera errepidea guztiz moztuta egongo da, eta Kalbarioko errepidea erabili beharko da horren ordez.



# Las obras de mejora de la carretera Deba-Mutriku (Gi-638) se iniciarán en 2018



Según informó el Diputado General de Gipuzkoa, Markel Olano, en la presentación del proyecto para la GI-638, tramo Deba-Mutriku, quienes habitamos en ambas poblaciones, el próximo 2018 veremos satisfecho un viejo y anhelado deseo con el inicio de las obras de mejora de la carretera entre ambas localidades.

Con un presupuesto de 11 millones de euros y una duración prevista de catorce meses (se prevé que estén finalizadas en invierno de 2019), las obras incluirán la ampliación del ancho de calzada, la apertura de un túnel recto de 80 metros en las proximidades de Alkolea, la apertura de curvas demasiado cerradas como la de Ipitxarri (junto al rompeolas) y la contención del monte y plantación de árboles en los lugares más problemáticos.

Asimismo, el proyecto aprobado incluye la realización de un paseo de dos metros de anchura para peatones, entre Ondarbeltz y la entrada a Mutriku, que en algunos tramos será en voladizo; algo similar al paseo panorámico costero que une las localidades de Zarautz y Getaria. También se incluye la realización de 18 plazas de aparcamiento a lo largo del recorrido.

La realización de esta añorada obra exigirá algunos pequeños sacrificios, ya que a lo largo de los catorce meses que duren los trabajos, durante nueve habrá regulación del tráfico mediante paso alternativo, y durante aproximadamente cinco meses la carretera estará completamente cortada, teniendo que utilizarse como alternativa la carretera del Kalbario.

# Zergatik ez iritsi %70era?



Zabor-bilketarako sistema berria ezarri zenetik 6 hilabete baino gehiago igaro ondoren, une egokia da horren inguruko balantze bat egiteko. Mankomunitateak birziklatzetasari buruz bidali dizkigun azken datuek diotenez, epe horretan %25etik %60ra igaro gara, eta beraz, hasierako helburua lortu dugu.

Datu bikain horiek argi eta garbi agertzen dute herritar gehienek jokabide egokia dutela gaikako zabor-bilketari dagokionez, eta bide onetik goazela erakusten digute.

Hala eta guztiz ere, ezin gara lasaitu. Edukiontzi grisaren erabilera oraindik ere handia da. Hobetzen jarraitu behar dugu %70era iristeko. Zergatik ez?

Denon artean (erakunde publikoek, saltokiek, ostalariek eta herritarrok) zailena egin dugu dagoeneko, eta hemendik aurrera ehuneko horiek hobetzea gero eta zailagoa izango den arren, zalantzarik gabe, denon inplikazioarekin, lortuko dugu.

Badakigu arazoak daudela bilketa-puntu batzuetan eta sistema berria ezar dadin beharrezkoa dela merkatariak eta ostalariak bereziki inplikatzea. Horregatik, Udalak, “hondakinen mahaian” erabaki zen moduan, sistema hori hobetzeko neurriak hartzen jarraituko du.




Udalak herritar guztiei gogorarazi nahi die **altzariak eta bolumen handiko bestelako gauzak** (koltxoiak, etxetresna elektrikoak, alfonbrak...) **ostegun gauetan** bakarrik jasotzen direla, eta beharrezkoa dela aldez aurretik mankomunitatera deitzea, **943 700 799** telefono-zenbakira. Azkenaldian ohikoa bihurtzen ari da horrelako elementuak edozein bazterretan eta asteko edozein egunetan ikustea. Aipatutako telefono-zenbaki horretara aldez aurretik deitzen ez bada, ez da inor pasako horiek jasotzera, eta baliteke zenbait egunez kalean botata egotea, herriari zikin eta utzikeriazko irudia emanez.

Egin dezagun denon artean ahalegin bat birziklatze-tasa handiagoak eta herri garbiagoa lortzeko.

# ¿Por qué no llegar al 70%?






Pasados más de 6 meses desde la implantación del nuevo sistema de recogida de basura, es un buen momento para hacer balance del mismo. Los últimos datos recibidos de tasa de reciclaje por parte de la mancomunidad nos indican que en este tiempo hemos conseguido pasar de un 25% hasta un **60%**, llegando al objetivo inicial.

Estos excelentes datos indican la buena actitud que la mayoría de la ciudadanía está teniendo con respecto a la recogida selectiva y nos hacen ver que estamos en el buen camino.

Sin embargo, no nos podemos relajar. El uso del contenedor gris es todavía alto. Debemos seguir mejorando para, ¿por qué no?, llegar al 70%.

Entre todos (instituciones públicas, comercios, hostelería y ciudadanía) hemos hecho lo más difícil, pero a partir de ahora la subida de las cifras será cada vez más complicada, pero sin duda, con la implicación de todos/as, lo conseguiremos.

Sabemos que existen problemas en algunos de los puntos de recogida y que el nuevo sistema requiere la especial implicación de los comerciantes y hosteleros/as. Por ello, el Ayuntamiento, tal y como se acordó en la “mesa de residuos”, va a seguir tomando medidas para mejorar el sistema.

El Ayuntamiento recuerda a todo el vecindario que los **muebles y objetos voluminosos** (colchones, electrodomésticos, alfombras...) se recogen únicamente los **jueves por la noche** y que es necesario llamar previamente a la mancomunidad, al teléfono **943 700 799**. Últimamente se ha vuelto habitual ver estos elementos en cualquier esquina y cualquier día de la semana. Si no se llama previamente al teléfono mencionado, nadie pasará a recogerlos y es posible que pasen varios días tirados en la calle, dando al pueblo una imagen de suciedad y dejadez.

Hagamos entre todos/as un esfuerzo más para conseguir unas tasas de reciclaje más altas y un pueblo más limpio.

# Deba ibaiaren Paisaiaren Ekintza Plana

## Plan de Acción del Paisaje del río Deba



Debako eta Mutrikuko Udalek eta Debegesak herri-partaidetzako bilera bat egin zuten joan den apirilaren 25ean Deba ibaiaren eta Sasiola-Astigarribiatik estuariorainoko ibai-ertzaren Paisaiaren Ekintza Plana garatzeko. Bilera hori, bi udalerrietako herritar guztiei irekia, Debako Agirre Jauregian egin zen.

Debako eta Mutrikuko Udalek, Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Agentziaren laguntza teknikoarekin batera, Deba ibaiaren eta bere ibai-bazterreko Paisaiaren Ekintza Plana prestatzeko lanak abiarazi dituzte Sasiola-Astigarribiatik hasi eta estuarioraino, jakitun baitira sekulako garrantzia duela paisaia babesteak, hobetzeak eta zaintzeak.

Plan horren helburua Deba ibaiaren eta bere ibai-bazterreko paisaia berreskuratzea eta horri balio handiagoa ematea da paisaiaren ikuspegitik tarterik interesgarrienetako batean, eta horrez gain, toki horrekin loturik dauden ondare-elementuak (kultura nahiz natura arlokoak) biltzea: Done Jakue bidea, ondare arkeologikoa, Astigarribia eta Sasiolarekin loturiko erlijio-ondarea, merkataritzaren eta nabigazioaren historia, turismoa, ondare naturala, balio ekologikoak, geologikoak, etnografikoak eta abar.

Lehen bilera horretara bi Udaletako udal teknikariak etorri ziren, baita Debegesa elkarteko arduradunak ere, elkarte horrek hartu baitu Deba ibaiaren Paisaiaren Ekintza Plana idazteko ardura, eta hala, arduradun horiek aurkeztuko dute paisaia-planen testuingurua, hori egiteko aukeratutako metodologia eta lortu nahi diren paisaia-kalitateko helburuak. Gainera, bilerara etorri ziren pertsonek egindako ekarpenak jaso dira diagnostikoa osatzearren.

Los Ayuntamientos de Deba y Mutriku y Debegesa celebraron el pasado 25 de abril una reunión de participación ciudadana para el desarrollo del Plan de Acción del Paisaje del río Deba y su ribera desde Sasiola-Astigarribia hasta su estuario. Dicha reunión, abierta a la ciudadanía de los dos municipios, tuvo lugar en el Palacio Aguirre de Deba.

Los Ayuntamientos de Deba y Mutriku, con el apoyo técnico de la Agencia de Desarrollo comarcal Debegesa, han iniciado los trabajos para la elaboración del Plan de Acción del Paisaje del río Deba y su ribera desde Sasiola-Astigarribia hasta su estuario, conscientes de la importancia que tiene la protección, mejora y conservación del paisaje.

Dicho Plan busca la recuperación y la puesta en valor del paisaje del río Deba y su ribera en uno de los tramos más interesantes desde el punto de vista paisajístico, así como por la concentración de elementos patrimoniales (culturales y naturales) vinculados al lugar: Camino de Santiago, patrimonio arqueológico, patrimonio religioso ligado a Astigarribia y Sasiola, historia del comercio y navegación, turismo, patrimonio natural, valores ecológicos, geológicos, etnográficos, etc.

A esta primera reunión acudieron técnicos municipales de los dos Ayuntamientos, así como responsables de Debegesa, entidad que se está encargando de la redacción del Plan de Acción del Paisaje del río Deba y que presentarán el contexto de los planes de paisaje, la metodología adoptada para su realización, y los objetivos de calidad paisajística que se persiguen. Además, se han venido recogiendo las aportaciones realizadas por las personas asistentes para completar el diagnóstico.

# Garbiketa eta mantentze-lanen kanpaina

## Campaña de limpieza y mantenimiento



Iaz bezala, aurtengo udaberrian ere garbiketa-kanpaina bat jarri dute abian, gure kaleen itxura hobetzeko helburuarekin.

Mankomunitatearen hidrogarbigailua hilabete baino gehiago aritu da gure kale, plaza eta pasealekuetan. Horrez gain, galtzadaharriak kokatzeko erabilitako sistema dela eta aipatutako makina horrek lan egiterik ez zuen kaleetan garbiketa berezi bat egin dute aurten. Garbiketa berezi horren kostua 12.000 eurokoa izan da eta emaitzak oso positiboak izan dira.

Era berean, zenbait lan egin dira gure iturrietan, eta Plaza Zaharrekoa eta Itur Kalekoa berreskuratu dira, hainbat urtez erabilezin edo egoera txarrean egon ondoren. Horrez gain, iragazgaiztu, txukundu eta zirkuitu itxiko sistema bat ezartzeko lanak egin zituzten zumardiko urmaelean, eta iturri berri bat jarri zuten haur-jolasen eremuan. Inguru horretan zuhaitzak eta loreak aldatzeak, gainerako ekintzekin batera, lagundu egiten du ingurunea hobetzen.

Baina ahalegin horiek guztiek ez dute ezertarako balio izango, ahalik eta ongien zaintzeko gai ez bagara. Jarduera horiek denon diruarekin ordaindu ditugu, eta denok hartu behar dugu horiek zaintzeko ardura.

Al igual que el año anterior, esta primavera se puso en marcha una campaña de limpieza con el fin de mejorar la estética de nuestras calles.

Además de la presencia de la hidrolimpiadora de la mancomunidad durante más de un mes en nuestras calles, plazas y paseos, este año se ha procedido a una limpieza especial de las calles en las que la mencionada máquina no podía trabajar, debido al sistema de colocación de los adoquines. El coste de esta limpieza especial ha sido de 12.000 euros y los resultados han sido muy positivos.

Asimismo, se han realizado diversos trabajos en nuestras fuentes, habiéndose recuperado las de la plaza Zaharra e Itur kalea después de estar inoperantes o en mal estado durante años. También se procedió a la impermeabilización, adecentado y puesta en marcha de un sistema de circuito cerrado en el estanque de la alameda y la instalación de una nueva fuente en la zona de juegos infantiles. La reposición de árboles y flores en la zona ayuda con el resto de las acciones a la mejora del entorno.

Pero todos estos esfuerzos no servirán de nada si no somos capaces de conservarlos lo mejor posible. Estas actuaciones han sido pagadas con el dinero de todos, y todos tenemos que responsabilizarnos de su cuidado.

# Astillero eta Osio kaleak berriro hiritartzeko obrak

## Obras de reurbanización de las calles Astillero y Osio

Astillero eta Osio kaleak berriro hiritartzeko obrak urrian hasiko dira. Horien aurrekontua 329.883,13¤-koa da, BEZ barne. Obra horiek egiteko ardura Asfaltos y Construcciones Morga S.L. enpresak hartu du bere gain.

Lanen konplexutasuna dela eta, eguneko 24 orduetan herritarren arretarako telefono bat jarriko du enpresa horrek, gerta litezkeen gorabeherak argitzeko.

Las obras de reurbanización de las calles Astillero y Osio comenzarán este mes de octubre. El presupuesto de las mismas es de 329.883,13¤ IVA incluido. La empresa encargada de la ejecución de dichas obras es Asfaltos y Construcciones Morga S.L.

Debido a la complejidad de éstas, la empresa habilitará un teléfono de atención al vecindario durante las 24 horas del día para solventar las posibles incidencias.

# Debako Udalak gure herriaren memoria historikoa berreskuratzeko proiektua abiarazi du

## El Ayuntamiento de Deba pone en marcha un proyecto de recuperación de la memoria histórica local



Debako Udalak gure herriaren memoria historikoa ikertzeko eta berreskuratzeko proiektu bat jarri du abian. Aranzadi Zientzia Elkarteak aurkeztutako proposamena aho batez onetsi zuen Ohiko Udal Batzarrak. Azterlan horrek 42.350 euroko kostua izango du.

Azterlan horren helburu nagusia 1936-1945 urte bitartean gertatutako giza eskubideen urraketak ezagutzea izango da, urraketa horietatik ikasteko, horien erreparaziorako eta, ahal den neurrian, berriro gerta ez daitezen prebentzio-neurri batzuk hartzeko.

Herriaren memoria historikoa berreskuratzen hastea da asmoa, eta hori gauzatu ahal izateko, funtsezkoa izango da udalerriko herritarrek horretan esku hartzea, Udalak oso dokumentazio urria duelako gerrari eta Francoren agintaldiari buruz.

Herritarren parte-hartzea prozesu aktiboa izan dadin, hitzaldiak eta erakusketak antolatzea aurreikusten da, baita memoria bulego bat ere, argazkiak, eskutitzak eta herritarrek beren etxeetan gordeta dituzten bestelako agiriak bildu ahal izateko.

Era horretan, gertatutakoa ezagutzeko gogoa piztuko diegu herritarrei, memoria historikoa berreskuratzeko lan hori egiaren aldeko, justizia izateko eskubidearen aldeko eta erreparazioa jasotzeko eskubidearen aldeko lan kolektibo bihurtuz.

Azterlan horrek ongi bereizitako hiru fase izango ditu. Lehenengoan datuak jasoko dira zenbait informazio-iturriren bitartez (liburuak eta artikulu idatziak, fitxategiak, ahozko lekukotzak, bai gerra eta frankismoaren lehen urteak bizi izan dituzten herritarrenak eta bai gerraren ondorioz hildako edo errepresaliatutako pertsonen zuzeneko senitartekoenak, argazkiak...), behin-behineko datu-base bat osatu ahal izateko.

El Ayuntamiento de Deba ha puesto en marcha un proyecto de investigación y recuperación de la memoria histórica de la localidad. La propuesta, presentada por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, fue aprobada por unanimidad del Pleno ordinario. El estudio tendrá un coste de 42.350 euros.

Este estudio se basará principalmente en el conocimiento de las vulneraciones de derechos humanos que se dieron durante los años 1936-1945, con el fin de aprender de ellas, repararlas y en la medida de lo posible para prevenir que no vuelvan a darse.

La idea es empezar a recuperar la memoria histórica local, y para poder llevarlo a cabo será fundamental la implicación de los vecinos y vecinas del municipio, ya que el Ayuntamiento apenas cuenta con documentación relativa a la guerra y el periodo franquista.

Para que la participación ciudadana sea un proceso activo, se prevé la organización de charlas y exposiciones, así como una oficina de la memoria para la recogida de las fotografías, cartas y demás documentos que pueda tener la ciudadanía en sus casas.

De esta manera, lograremos mantener en la ciudadanía el interés por conocer lo sucedido, haciendo de la recuperación de la memoria histórica un trabajo colectivo en pro del derecho a la verdad, el derecho a la justicia y el derecho a la reparación.

Este estudio contará con tres fases bien diferenciadas. En la primera, se recogerán datos a través de varias fuentes de información (libros y artículos escritos, archivos, testimonios orales tanto de los vecinos que vivieron la guerra y los primeros años del franquismo, como de los familiares directos de las personas fallecidas o represaliadas a consecuencia de la guerra, fotos...), para así completar una base de datos provisional.

Jarraian, bigarren fasean, bildutako agiri horiek aztertzea eta argazkiak digitalizatzea izango da proiektuaren muina, behin betiko datu-base bat osatzeko. Azkenik, ikerketaren emaitzak bilduko dituen eta dibulgazio-xedea izango duen liburu bat argitaratzea aurreikusten da 2019. urtean. Era berean, prozesuan parte hartzen duten familiei DVD bat eskainiko zaie bildutako ahozko testigantzekin, eta zenbait ekitaldi antolatuko dira Debako biktimen memoriak dagokion erreparazioa izan dezan.

Proiektu hau memoria berreskuratzeko lehen fasea besterik ez da, 1945-1975 urteak bilduko dituen bigarren fase bat garatzeko geldituko litzatekeelako.

Horrez gain, 1960-2017 epealdiari dagokionez Debako Udalaren memoriaren politikak definitzen hasteko proiektua aho batez onetsi zuen udalbatzak.

Proiektu hori 2017. urtean gauzatuko da, eta horretarako, 7.000 euro inguruko kontu-sail bat xedatuko da (Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jasoko du neurri batean).

Beste proiektu honen asmoa, hain zuzen ere, bakearen eta bizikidetzaren ikuspegitik egungo egoerari buruzko diagnostiko bat egitea da, eta alderdi politiko bakoitzak duen ikuspegi berezia aztertzea, gai honetan sakontzen jarraitzearren elkarrekin partekatzen dituzten puntuak, desberdintasunak, aukerak eta zailtasunak bilatu ahal izateko.

Azterlan hori BAKEOLAk egingo du eta memoriaren politika definituko duen jarduera-plan bat definitu daitekeen frogatzeko aukera emango du, eta ezingo balitz, zergatia aztertuko da, zein arrazoi dauden bakearen eta bizikidetzaren alorrean jarduera hauek geldiarazteko.

A continuación, en una segunda fase, el proyecto se centrará en el análisis de los documentos recogidos y la digitalización de las fotografías para poder completar una base de datos definitiva. Por último, para el 2019 se prevé la publicación de un libro de carácter divulgativo con los resultados de la investigación. Asimismo, se entregará a las familias que participen en el proceso un DVD con los testimonios orales recogidos y se organizarán diversos actos para reparar la memoria de las víctimas debarras.

Este proyecto no es nada más que la primera fase de recuperación de la memoria, ya que quedaría pendiente una segunda fase durante los años 1945-1975.

Asimismo, la corporación aprobó en Pleno (por unanimidad) el proyecto para empezar a definir las políticas de memoria del Ayuntamiento de Deba referidos al período 1960-2017.

Este proyecto se llevará a cabo a lo largo del año 2017 y para ello se destinará una partida aproximada de 7.000 euros (subvencionada en parte por la Diputación Foral de Gipuzkoa).

Este otro proyecto tratará de hacer un diagnóstico de la situación en materia de paz y convivencia, y analizar la visión particular de los partidos políticos, para buscar puntos en común, divergencias, oportunidades y dificultades que pudieran existir de cara a seguir profundizando en esta materia.

El estudio lo realizará BAKEOLA y permitirá ver si es posible definir un plan de actuación que defina la política de memoria y si no lo es, conocer el porqué, las razones que nos llevan a paralizar estas actuaciones en materia de paz y convivencia.

# Polentzi Markiegiren heriotzaren 80. urteurrena

## 80 ANIVERSARIO DE LA MUERTE DE POLENTZI MARKIEGI

Datorren urriaren 15ean bi legegintzalditan Debako alkate izandako Polentzi Markiegi fusilatu zuteneko 80. urteurrena ospatuko da.

Markiegi 1936. urteko abuztuaren 26an preso hartu zuten eta El Duesoko espetxean giltzaperatu zuten. Han, sasi-epaiketa baten ondoren, epaimahai militar batek heriotza-zigorrera kondenatu zuen, eta 1937ko urriaren 15ean goizaldera Berriako hondartzan fusilatu zuten.

Debako Udalak omenaldi bat antolatu nahi du bertako alkate izandakoaren oroimenez eta, bide batez, Gerra Zibilak izandako eragina erakutsi nahi die belaunaldi gazteei. Horretarako, ekitaldi batzuk antolatuko ditu urrian, bere ideiak eta demokrazia duintasunez babesteagatik bizia eman zuen pertsona hura ezagutzeko balio izango dutenak.

El próximo 15 de octubre se celebrará el 80 aniversario del fusilamiento de Polentzi Markiegi, alcalde de Deba durante dos legislaturas.

Markiegi fue hecho prisionero el 26 de agosto de 1936 e internado en el penal del Dueso. Allí, tras un juicio farsa, fue condenado a la pena capital por un tribunal militar, siendo fusilado la madrugada del 15 de octubre de 1937 en la playa de Berria.

El Ayuntamiento de Deba quiere honrar la memoria del ex alcalde debarra y a la vez mostrar a las jóvenes generaciones lo que supuso la Guerra Civil. Para ello, va a organizar una serie de actos durante el mes de octubre que servirán para dar a conocer la figura de quien murió por defender dignamente sus ideas y la democracia.

# 2017ko aurrekontuak

## Presupuestos 2017



Debako Udalaren 2017ko aurrekontua 2017/03/30eko ohiko udal batzarrean onetsi zen, eta Aurrekontu Bateratua, guztira, 7.549.392¤-koa izan da. Udalak duen antolamendu motarekin bat etorriz, zenbateko orokor hori lau ataletan banatu da.

Alde batetik, Arte Eskolako Patronatua dugu, guztira 216.000¤-ko zenbatekoa duela; bigarren tokian Deba Musikal Patronatua dago, guztira 544.877¤-ko zenbatekoarekin; Itziarko Auzo Udala dator hirugarrenik, kudeatu beharreko 810.277¤-ko zenbatekoarekin; eta azkenik, Debako Udala dugu, 7.202.763¤ izango dituela 2017ko ekitaldiko finantzak kudeatzeko.

Debako Udalaren Aurrekontuari dagokionez, herritar guztiei onura ekartzeko helburua duten inbertsioak era askotakoak dira, guztiak ere nabarmendu beharrekoak. Udalerriari balio handiagoa eman nahirik, kontu-sail batzuk Santa Katalinako lursailak eskuratzeko xedatuko dira. Halaber, herritarrek irizpide-sare hobea eta erosotasun handiagoa izan dezatela bermatzearren, inbertsio batzuk egingo dira Astillero kalearen zati bat oinezkoentzat bihurtzeko, Osio kalea antolatzeko eta Aldats pilotalekuaren estalkia egokitzeko, besteak beste.

Aisialdiarekin loturik, berriz, uretako kirolak sustatzen dituzten proiektu batzuk ditugu, baina ez dugu ahaztu nahi Debako gazteen garapen egokia bermatu behar dela une oro. Fondo batzuk ere xedatuko dira irizpideak hobetzeko, eta dagoeneko hasiak dira Eguneko Zentroan lan batzuk egiten; ez dugu ahaztu nahi, halaber, STOP Alzheimer proiektuarekin aurrera jarraitu behar dela. Debako elkarte desberdinekin izandako elkarlana eta alde guztietatik izandako etengabeko hobekuntza, halaber, ekitaldi honetan landu beharreko gaiak dira, eta ez dugu inoiz ahaztu behar egoera larrienean dauden pertsonei laguntzea funtsezko puntuetako bat dela gure jarduera-politikaren barruan.

Los Presupuestos para el año 2017 del Ayuntamiento de Deba fueron aprobados en el pleno ordinario del 30/03/2017, con una suma total del Presupuesto Consolidado de 7.549.392¤. Acorde a la forma de organización con la que cuenta el Consistorio, este importe general se divide en cuatro ramas.

Por un lado, se encuentra el Patronato de Arte Eskola, con una suma total de 216.000¤; el segundo lugar ocupa el Patronato de Deba Musikal, con una suma de 544.877¤; la Entidad Local Menor de Itziar es la que está en tercer puesto con un importe de 810.277¤ a gestionar; y por último, Debako Udala, que dispondrá de 7.202.763¤ para su gestión financiera del ejercicio 2017.

Respecto al Presupuesto de Debako Udala, las inversiones a destacar son de muy diversa índole, con el objetivo de aportar beneficio a la totalidad de la población. Para revalorizar el municipio se destinan partidas a la adquisición de los terrenos de Santa Katalina. Asimismo, para garantizar una mayor accesibilidad y comodidad de los ciudadanos se va a invertir en la peatonalización de parte de la calle Astillero, en la ordenación de la calle Osio y acondicionamiento de la cubierta del frontón Aldats, entre otros.

En relación al ocio, también existen proyectos que potencian los deportes acuáticos, sin olvidarnos de garantizar en todo momento un correcto desarrollo de los jóvenes de Deba. También se destinan fondos para la mejora de accesibilidad ya comenzadas del Centro de Día; sin olvidarnos de continuar con el proyecto STOP Alzheimer. La colaboración con diferentes asociaciones de Deba como la mejora continua en todos los aspectos son también temas a trabajar durante este ejercicio, sin olvidar nunca que la ayuda a las personas más desfavorecidas es un punto fundamental de nuestra política de actuación.

# Gizarte **laguntzak** • Ayudas **sociales**



Gizarte Zerbitzuen Sailak, azken urte hauetan, diru-sarrera urriak dituzten familietako adingabeak bazterkeria-egoeran bizi direla atzeman du, Deban ditugun aisialdi jardueratan parte hartzeari dagokionez.

Gizarteratzearekin loturiko esparru hau adingabeen garapen orokorrerako ezinbesteko elementuetako bat izanik, horrelako udal jarduera publikotan parte hartzeko erraztasunak eman nahi ditu Udalak. Era horretan, kuota bereziak finkatu dira prestazio ekonomikoak (DBE, DBL, GLL) jasotzen dituzten familientzat, ondorengo zerbitzu hauetan:

- Musika Eskola
- Kirol anitza eta udako kirola
- Udaleku irekiak
- Euskara Sailaren jarduerak (Gozatuz)

Gizarte-neurri honek gutxieneko kostua dakarkio udal aurrekontuari eta gure gizartean sustatu beharreko funtsezko balio eta elementu integratzaileak sustatzen ditu.

Desde el departamento de Servicios Sociales en los últimos años, se ha venido detectando la situación de exclusión en la que se encuentran los menores cuyas familias tienen un bajo nivel de ingresos, en cuanto al acceso y participación en actividades de ocio y tiempo libre en Deba.

Valorando éste área de socialización como un elemento imprescindible en el desarrollo integral de las personas menores de edad, desde el Ayuntamiento se ha impulsado este aceeso en todas aquellas actividades municipales, públicas. De esta manera, concretamente, se han establecido cuotas diferenciadas para las familias perceptoras de prestaciones económicas (RGI, AGI y AES) en los siguientes servicios:

- Escuela de música
- Multideporte y deporte de verano
- Colonias abiertas de verano
- Actividades del Departamento de Euskara (Gozatuz)

Esta medida social supone un mínimo coste al presupuesto municipal y promueve elementos y valores integradores fundamentales a potenciar en esta sociedad.

## Debako Berdintasun sailaren 2017ko jarduera-ardatzak

## Ejes de actuación del Departamento de Igualdad




Debako Berdintasun Sailaren helburu orokorra berdintasun-politikak bultzatzea da eta horretarako lau ardatz ditugu:

**1 - Genero ikuspegia txertatzea**
**2 - Debako emakumeen ahalduntzea**
**3 - Balioen aldaketa**
**4 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea**

El objetivo principal del Departamento de Igualdad es impulsar políticas de igualdad, para lo cual tiene establecidos 4 ejes de actuación:

**1 - La incorporación de la perspectiva de género**
**2 - El empoderamiento de las mujeres**
**3 - El cambio de valores**
**4 - La erradicación de la violencia contra las mujeres**

# BIRGAIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA LANAK
## 3. ADINEKOEN ZENTROAN ETA GIZARTE-ZERBITZUETAN



Debako Eguneko Zentroko segurtasun- eta ebakuazio-sistemak dituen hutsuneak aspalditik nabarmendu izan dira. Eraikin esanguratsu honek ondorengo zerbitzuak biltzen ditu:

- Behe-solairuan: 3. Adineko Zentroko kafetegi-zerbitzua eta Arbil Jubilatuen Elkarteak erabiltzen duen areto handi bat.
- Lehen solairuan: Gizarte Zerbitzutako udal-bulegoak, 3. adinekoentzako eta elbarrituentzako podologia eta ile-apaindegi zerbitzuak eta Arbil Elkartearen bulegoa.
- Bigarren solairuan: Eguneko Zentroa.

Udalaren iritziz lehentasunezkoa da arazo horri irtenbide bat ematea, eta hala, lehen eta bigarren solairuetako baoak itxi egin dira martxoan. Neurri horren bitartez, onura asko lortu dira: tximinia-efektua ezabatu da suteren bat gertatuz gero, metroak irabazi dira eraikinaren solairu bakoitzean, erortzeko arriskua ezabatu da, batez ere Eguneko Zentroan, eta behe-solairuko aretoa isolatu eta beroago mantendu dadila lortu da. Obraren kostu osoa 16.055¤-ra iritsi da.

Beste alde batetik, joan den urteaz geroztik, zenbait hartu-eman izan ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Diputatuarekin, bigarren solairura zuzenean iristeko aldapa bat egiten lagundu dezaten, bertako segurtasuna bermatzeko eta Eguneko Zentroko erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko. Badirudi kudeaketa-lan horiek bide onetik doazela, eta laster espedienteari ekin ahal izatea espero dugu, hori gauzatu dadin.

Zalantzarik gabe, neurri hauek aurrerapen benetan garrantzitsuak dira zentro osoko erabiltzaileentzat, eta gogorarazi nahi dugu Eguneko Zentroan autonomia maila oso mugatua duten pertsonak ditugula, eta horrenbestez, segurtasun-neurriak ezinbesteko elementu bihurtzen direla.

# REMODELACIÓN Y MEJORAS EN EL CENTRO DE 3ª EDAD Y SERVICIOS SOCIALES

Desde hace muchos años se han venido señalando los déficits que presentaba el sistema de seguridad y evacuación del Centro de Día de Deba. Este edificio emblemático alberga los siguientes servicios:

- Planta baja: el servicio de cafetería del Centro de 3ª Edad y una gran sala para uso de la Asociación Arbil de Jubilados/as.
- Primera planta: las oficinas de los Servicios Sociales municipales, los servicios de podología y peluquería para personas de la 3ª edad y discapacitadas y la oficina de la Asociación Arbil.
- Segunda planta: Centro de Día.

Desde el Ayuntamiento se ha considerado prioritario dar una solución a este problema, ejecutando en el mes de marzo el cierre de los huecos de la primera y segunda planta. Con esta medida se han logrado muchos beneficios: eliminar el efecto chimenea en caso de incendio, ganar metros en cada planta del edificio, eliminar el riesgo de caída, principalmente en el Centro de Día, y aislar y mantener más caliente la sala de la planta baja. El coste total de la obra ha ascendido a 16.055¤.

Por otra parte, ya desde el año pasado, se han mantenido varios contactos con la Diputada de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para que se apoye la ejecución de una rampa de acceso directo a la segunda planta, que garantice seguridad y mejore la accesibilidad de las personas usuarias del Centro de Día. Estas gestiones parece que van a tener buen resultado, esperando que en breve se pueda iniciar el expediente para su ejecución.

Sin duda, estas medidas constituyen unos avances significativos para las personas usuarias de todo el centro, recordando que justamente el Centro de Día alberga a personas con un nivel de autonomía muy limitado, por lo que las medidas de seguridad constituyen un elemento imprescindible.



# Erlojuaren kanpai-egitura konpontzea



Joan den maiatzean, erlojuaren kanpaiak zintzilikatzen diren egitura metalikoa konpontzeari ekin zitzaion, eta horrekin batera, hori sostengatzen duen oinarria.

Duela bi urte, Debako parrokiako batzarrak idatzi bat igorri zion Udalari, eta bertan jakinarazten zen egoera txarrean aurkitzen zela erlojuaren kanpandorrea.

Bai elizako erlojua eta bai orduak ematen dituzten kanpaiak ere Debako Udalaren jabetzakoak direnez gero eta mantentze-lanak haren ardura direnez gero, Udalak diru-laguntza bat eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari beharrezko eraberritze-lanak egiteko, baina diru-laguntza hori ukatu egin zitzaion.

Denboraldi bat igaro ondoren, aipatutako egitura hori gero eta egoera okerragoan zegoela ikusirik, eta pertsonen segurtasuna bermatzeko premia zegoela kontuan izanik, Udalak obra horri ekin zion.

Sagarmiña enpresak egin zuen eta 15.000 euro inguruko kostua izan du.

## KLAUSTROAREN ONDOKO MENDI-MAZELA GARBITZEA

Ekainaren amaieran Santa Maria elizako klaustroaren ekialdeko hegalaren gainean kokatutako mendi-mazela garbitu eta sastrakak kendu zituzten. Gainera, teilatuhodia eta mendiko urak biltzen dituen gainezkabidea garbitu zituzten.

Zuhaitzak eta landaredia klaustroaren teilatuan kalte larriak eragiten ari zirelako egin behar izan zituzten lan horiek, eta eroritako hostoak gainezkabideak oztopatzen ari zirelako eta, horren ondorioz, epe labur batean urak hartuta gera zitekeelako eliza.

Beste alde batetik, landaredia eta mendi-mazelan behera zetorren ura kalteak eragiten ari ziren klaustroaren horman, hezetasunaren ondorioz.

Saneamendu-lanak DEBEMEN elkarteak egin zituen eta horren kostu orokorra 5.000 eurora iritsi zen.

# Reparación de la estructura **de las campanas del reloj**

El pasado mes de mayo se procedió al arreglo de la estructura metálica de la que penden las campanas del reloj, así como de la base sobre la que ésta se asienta.

Hace dos años, la junta parroquial de Deba hizo llegar un escrito al Ayuntamiento en el cual se informaba del mal estado del campanil del reloj.

Debido a que tanto el reloj de la iglesia como las campanas que dan las horas son propiedad del Ayuntamiento debarra y a éste corresponde su mantenimiento, el consistorio solicitó una subvención a la Diputación Foral de Gipuzkoa para realizar las reformas necesarias, ayuda que fue denegada.

Transcurrido un tiempo, viendo la degeneración de la citada estructura, y ante la imperiosa necesidad de garantizar la seguridad de las personas debido al peligro que ello entrañaba, el Ayuntamiento inició la obra.

Ésta fue realizada por la empresa Sagarmiña y el coste total de la misma ascendió a algo más de 15.000 euros.



## LIMPIEZA DE LA LADERA DEL CLAUSTRO



A finales de junio se procedió a la limpieza y desbroce de la ladera situada sobre el ala Este del claustro de Santa María, así como a la del canalón del tejado y la del aliviadero que recoge las aguas del monte.

Esta actuación ha sido debida a que los árboles y la vegetación estaban dañando seriamente el tejado del claustro, y las hojas caídas estaban cegando los aliviaderos, con el consiguiente riesgo de que en poco tiempo pudiera producirse una inundación en la iglesia.

Por otro lado, la vegetación y el agua descendente de la ladera estaban dañando los muros del claustro debido a las humedades.

La obra de saneamiento fue realizada por DEBEMEN y el coste total de ésta ascendió a 5.000 euros.

# DONE JAKUE BIDEAREN SEGURTASUNA HOBETU ETA BALIOAN JARTZEA



Debako Udalak, Debako Done Jakue Bideko Lagunen Elkartearekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroarekin batera, urteak daramatza Done Jakue Bidea bultzatzen eta sustatzen. Tren-geltokiko eraikina aterpetxe gisa egokitzeaz gain, azken urte hauetan hobetu dira herri barruko nahiz landa eremuko seinaleak, oinezkoentzako igarobide babestu bat atondu da Mardari eta Itxaspe artean eta Done Jakue Bidearekin loturiko monumentu batzuk eraberritu dira, Gurutze baseliza, esate baterako.

Urte honetarako, hiru jarduera egitea aurreikusi da Done Jakue bidea eta galtzada-tarte batzuen egitura arkeologikoa babestu, berreskuratu eta mantentzeko. Horri esker, Bidea balioan jarriko dugu eta erromesak erosoago igaroko dira. Izan ere, joan den uztailean bide publikoa garbitzeko eta sastrakak ezabatzeko lanak egin ziren Gaintza eta Itziar artean; aspaldiko bide bat da, eta bai erromesei eta bai inguruko gainerako ibiltariei ere Itziarko herrigunera segurtasunez iristea ahalbidetuko die. Inguru horretan, Usabiartza baserritik Gaintzara doan tartean, 50 metroko zati batean drainadura hobetuko da, urtearen parte handi batean lokaztuta egoten delako eta ibiltzea zaila izaten delako.

Era berean, Ospitale baserria eta Sasiola arteko galtzada berreskuratzeko lanak egingo dira. Bide-tarte hori gaur egun ibilgaitza da, eta Bide Zaharretik Sasiolako Komentura zuzenean iristeko aukera emango digu. Deba-Sasiola-Astigarribia-Markina ingurabidea berreskuratzeko lehen urratsa da.

Horrez gain, balio handiagoa emango zaio Debako herrigunera sartzeko bide-zatiari, San Roketik Mogelera jaisten den galtzada-zatiari, hain zuzen.

Hiru jarduera horietarako kalkulatutako aurrekontua 30.000 eurokoa da. %50 Eusko Jaurlaritzako kultura-ondarearen sailak finantzatuko du, %25 Debako Done Jakue Bideko Lagunen Elkarteak ordainduko du eta gainerako %25 Debako Udalak jarriko du. Dena den, Itziarko Entitate Txikiaren mendeko lurraldearen barruan egindako jarduera guztien %25 erakunde horren aurrekontuaren kontura izango da.

## Deban lo egin duten erromesak
## Peregrinos que han pernoctado en Deba

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aterpetxea** | 187 | 963 | 1.533 | 2.064 | 2.586 | 3.574 | 4.794 | 6.229 | 6.824 | 7.758 | 7.298 | 8.015 | 8.585 | **60.410** |
| **Beste alojamenduak** | 341 | 601 | 497 | 94 | 492 | 173 | 308 | 242 | 702 | 975 | 2.293 | 2.442 | 3.665 | **12.825** |
| **DENERA** | **528** | **1.564** | **2.030** | **2.158** | **3.078** | **3.747** | **5.102** | **6.471** | **7.526** | **8.733** | **9.591** | **10.457** | **12.250** | **73.235** |

Iturria/Fuente: Debako Turismo Bulegoa

# PUESTA EN VALOR Y MEJORA DE LA SEGURIDAD EN EL CAMINO DE SANTIAGO



El Ayuntamiento de Deba, junto a la Asociación de Amigos del Camino de Santiago de Deba y el Centro de Patrimonio Cultural de Gobierno Vasco, lleva años impulsando y promocionando el Camino de Santiago. Además del acondicionamiento como albergue del edificio de la estación de ferrocarril, en los últimos años se ha mejorado la señalización urbana y rural, se ha habilitado un paso peatonal protegido entre Mardari e Itxaspe y se han restaurado algunos de los monumentos afectos al Camino como la ermita de Gurutze.

Para este año, se ha previsto realizar tres actuaciones encaminadas a la preservación, recuperación y mantenimiento del Camino y de la estructura arqueológica de varios tramos de calzada que posibilitará su puesta en valor y facilitará el tránsito de peregrinos. De hecho, el pasado mes de julio se llevaron a cabo las labores de limpieza y desbroce del camino público entre el alto de Gaintza e Itziar, un viejo camino que permite a los y las peregrinas, así como al resto de caminantes de la zona, acceder al casco de Itziar de forma segura. En esa misma zona, entre el caserío Usabiartza y el alto de Gaintza, se va a proceder a mejorar el drenaje de un tramo de 50 metros que durante gran parte del año suele estar enfangado y en el que resulta dificultoso caminar.

De igual modo, se va a recuperar la calzada entre el caserío Ospitale y Sasiola. Un tramo actualmente intransitable que nos va a permitir acceder directamente desde el Camino Viejo al Convento de Sasiola. Un primer paso en la recuperación de la variante Deba-Sasiola-Astigarribia-Markina.

Además, se va a poner en valor el tramo del camino de entrada al núcleo de Deba, concretamente el tramo de calzada de la bajada de San Roque a Mogel.

El presupuesto estimado para estas tres actuaciones es de 30.000¤. El 50% va a ser financiado por el departamento de patrimonio cultural del Gobierno Vasco, el 25% correrá a cargo de la Asociación de los Caminos a Santiago de Deba y el 25% restante lo aportará el Ayuntamiento de Deba. No obstante, el 25% de las actuaciones realizadas dentro del territorio de la ELM correrá a cargo del presupuesto de la misma.



Done Jakue Bideari dagokionez, adierazi nahi dugu, joan den uztailean Debako Done Jakue Bideko Lagunen Elkarteak San Rokeko jaitsierako 220 metro irristaketaren aurkako asfalto-geruza batez egokitu zuela. Horren helburua bertako segurtasuna hobetzea eta inguru horretan sarri gertatzen diren erorketak eragoztea da. Jarduera horren kostua, 15.000 ¤, Debako elkarteak ordaindu du oso-osorik. Eskerrik asko!

En relación al Camino, es preciso señalar que el pasado mes de julio la asociación de amigos de los Caminos a Santiago de Deba acondicionó con una banda de asfalto antideslizante 220 metros de la bajada de San Roque, con el fin de mejorar la seguridad y evitar las numerosas caídas que se producen en esta zona. El coste de esta actuación, 15.000 ¤, ha sido sufragado íntegramente por la asociación debarra. Eskerrik asko!

# ERABILERA TURISTIKORAKO ETXEBIZITZAK ETA LOGELAK



Euskadira bisitan etortzen den turista kopurua etengabe hazten ari denez eta etxebizitzen eta etxe partikularretako logelen erreserbak egitera eta bitartekaritza-lana egitera dedikatzen diren webguneak eta enpresak agertu direnez, etxebizitza-eraikinetako higiezinak erabilera turistikorako xedatzen dituztenen kopurua ere esponentzialki handitu da. Oporretarako etxebizitza eta logelen alokairua tradizioz Euskal Kostalde osoan izan badugu ere, jarduera honen garapena kolektibo jakin batzuen behar eta interesagatik areagotu egin da, eta hala, esaterako, zenbait familia edo taldek elkarrekin, denak batera egon nahi izaten dute, eta etxejabeek ere etekin ekonomikoa atera nahi izaten diete beren ondasun higiezinei, etxebizitza-xede horretatik haratago joanez.

Joan den urteko abuztuaren 31n Turismoaren 13/2016 Legea sartu zen indarrean, eta bertan, ostatu-modalitate gisa, erabilera turistikoko etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako logelak finkatzen dira. Lege berriak ostatu-establezimendu turistikoetatik bereizten dituen arren, enpresa turistikotzat jotzen ditu eta, horren ondorioz, zerbitzuen 2006/123 zuzentarauarekin bat etorriz, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpen-erregimenaren menpe egongo dira. Hala, adierazpen hori egin gabe etxebizitzak kontratatzea edo ustiatzea klandestinotzat jotzen da legearen ondorioei begira.

Adierazi beharra dago, Euskadin dauden gainerako ostatu-modalitateekin gertatzen ez den bezala, oraindik gauzatzeko dagoela horren arauzko garapena, eta horrexegatik, udal batzuk beren ordenantza propioak prestatzen hasi dira, jarduera turistikoa, iraunkorra izateaz gain, orekatua ere izan dadila lortzearren.

Udal gobernua jakitun da hotel-plaza gutxi dagoela gure udalerrian eta turismoaren lege berriak negozio-aukera aparta eskaintzen diela herritar askori. Baina ohartzen gara horrelako enpresak neurrigabeki ugaritzeak hainbat arrisku eta kalte ere ekar ditzakeela, eta bereziki, etxebizitzaren alorrean, prezioak asko handitzea eragin baitezake, edo alokairuko etxebizitzen parkea ahitu baitezake, Deban lehendik berez nahiko urria. Eta ez ditugu ahaztu behar diskriminazio-egoera batzuk sor daitezkeela beste enpresa turistiko batzuekin, esate baterako, lege-betebeharrei dagokienez edo udal zerga eta tasetan ordaindu beharreko zenbatekoei dagokienez. Horregatik, udal ordenantza berri bat aztertu eta landuko dugu, horrelako enpresen eskaintza orekatu bat sortzea ahalbidetuko duena, gure herriaren garapen iraunkorrari kalterik egin gabe.



## Flyscharen ibilbideko seinalizazioa hobetzen

## Mejora de la señalización de la Ruta del Flysch

Seinalizazio berriari esker GR-121a egiten duten bisitariek errazago aurkituko dute orain ibilbideren irteera puntua.

La nueva señalización de la GR-121 en el casco de Deba facilita a los senderistas el punto de partida de este recorrido.

# LAS VIVIENDAS Y HABITACIONES PARA USO TURÍSTICO



El incremento continuado de turistas que visitan Euskadi, junto con la aparición de páginas web y empresas dedicadas a la captación e intermediación en la reserva de viviendas y habitaciones en casas particulares, ha propiciado el crecimiento exponencial del uso de inmuebles en edificios residenciales para uso turístico. Si bien el alquiler de viviendas y de habitaciones vacacionales ha existido tradicionalmente en toda la Costa Vasca, el desarrollo de esta actividad se produce también en parte por el interés de determinados colectivos, tales como familias o grupos que desean mantener un marco de convivencia colectiva, así como por el interés de las propietarias o propietarios de obtener un rendimiento económico de sus bienes inmuebles, más allá del propio de su destino a vivienda.

El 31 de agosto del año pasado entró en vigor la Ley 13/2016 de Turismo en la que se establecen como modalidades alojativas las viviendas para uso turístico y las habitaciones en viviendas particulares. Aunque la nueva ley las diferencia de los establecimientos de alojamiento turístico, las considera empresas turísticas y como tales, de acuerdo con la directiva 2006/123 de servicios, están sometidas al régimen de declaración responsable de inicio de actividad. De hecho, la contratación o explotación de viviendas sin dicha declaración se considera clandestina a los efectos de la ley.

Cabe señalar que a diferencia del resto de modalidades alojativas existentes en Euskadi, queda pendiente su desarrollo reglamentario, y por ello algunos ayuntamientos han comenzado a confeccionar sus propias ordenanzas con el objeto de lograr que la actividad turística sea, además de sostenible, equilibrada.

El gobierno municipal es consciente de la escasez de plazas hoteleras en nuestro municipio y de la oportunidad de negocio que para muchas vecinas y vecinos ofrece la nueva ley de turismo. Pero no somos ajenos a los riesgos y posibles perjuicios que el incremento desmesurado de este tipo de empresas puede llegar a causar, concretamente en el ámbito de la vivienda, propiciando el incremento de precios, o acabando con el parque de viviendas de alquiler residencial que de hecho en Deba es ya alarmantemente bajo. Sin obviar las situaciones discriminatorias que respecto a otras empresas turísticas pueden surgir en relación, por ejemplo, a requisitos legales o a los importes de impuestos y de tasas municipales. Por ello, vamos a analizar y trabajar en una nueva ordenanza municipal que permitirá crear una oferta equilibrada de este tipo de empresas, sin perjudicar el desarrollo sostenible de nuestra localidad.

## 100 boluntariotik gora Elorriagako labarrak garbitzen
## Más de 100 voluntarios participaron en la limpieza del acantilado de Elorriaga



Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako ekitaldi honek Jesus Callejaren Volando Voy programako lantaldearen laguntza izan zuen. Grabatutako irudiak Euskal Geoparkeari buruz Cuatron emango duten programan ikusi ahal izango dira.

La jornada fue organizada por el Geoparque de la Costa Vasca y contó con la colaboración del equipo de Jesús Calleja del programa de televisión “Volando Voy”. Las imágenes del día se podrán ver en el programa que sobre el Geoparque de la Costa Vasca emitirá Cuatro.

# Hondartzako lehen lerroa
# Primera línea de playa

Deban bizi garen guztion kezka nagusienetako bat, hondartzako lehen lerroan itxita aurkitzen diren eraikinen egoera tamalgarria da: Kresala Hotela, Kasinoa eta garai bateko Miramar Hotelaren orubea.

Udala ohartzen da arazo larria dela hori, eta ez bakarrik gure herriaren estetikari eta irudiari eragiten diolako, baizik eta, baita ere, eraikin horiek irekitzeak eta funtzionamendu on bat erakusteak ekonomia arloan nahiz gizarte arloan onura asko ekar ditzakeelako.

Hiru eraikin horien jabetza pribatua da eta udala ahal duen tokiraino iristen da. Nolanahi ere, Udala zenbait kudeaketa egiten ari da Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta sektoreko enpresa batzuekin, eta baieztа dezakegu une honetan bi enpresa interesatuta daudela Kresala Hotelaren jabe egin eta irekitzeko, eta benetan espero dugu amaiera on bat izatea, ahalik eta denbora-tarterik laburrenean.



Una de las grandes preocupaciones de todos quienes habitamos en Deba es el degradado estado en el que se encuentran los edificios cerrados y situados en primera línea de playa: el Hotel Kresala, el Casino y el solar del antiguo Hotel Miramar.

El Ayuntamiento es consciente de este grave problema, no sólo por lo que afecta a la estética e imagen de nuestro pueblo, sino también por lo que la apertura y buen funcionamiento de estos edificios podría generar económica y socialmente.

Los tres edificios son de propiedad privada y el consistorio llega hasta donde puede hacerlo. No obstante, este Ayuntamiento está realizando gestiones en el Gobierno Vasco, en la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como con empresas del sector, y podemos afirmar que en estos momentos hay dos empresas interesadas en hacerse con la propiedad y apertura del Hotel Kresala, por lo que confiamos tengan un buen final en el más breve espacio de tiempo.

# PERTSONALEKO POLITIKA: UDALEKO ETA BERE PATRONATUETAKO LANGILE ZERRENDAREN AZTERKETA

## Política de personal: estudio de la plantilla de trabajadores del ayuntamiento y de sus patronatos



Udalak, bere eginkizunak egoki garatu ahal izateko, eskaintzen diren zerbitzuei eta herritarren eskaerei behar bezala erantzungo dieten baliabide pertsonal egokiak bereganatu behar ditu.

Bere garaian hartutako erabakiak direla eta, kasu batzuetan udal mailan hartutakoengatik eta beste batzuetan, krisi-garaietan langileak kontratatzeko politikan Gobernuak Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritako mugengatik, Udal Gobernura iritsi ginenean, ez genuen egoera desiragarririk topatu udaleko langileei dagokionez.

Beste alde batetik, langile zerrendako zenbait pertsonak erretiroa hartu izanak, zerbitzu batzuen funtzionamendu txarrak, Itziarko Auzo Udala sortu izanak, patronatu batzuen egoera aztertu beharrak eta langileen politikari eragiten dioten arau batzuk aldatu izanak behartu egin gaituzte lantaldeari buruz azterketa eta diagnostiko bat egitera, beharrezkoak diren neurriak har daitezen.

Lehenengo datuek esaten digute bitarteko funtzionarioen eta Debako Udalak aldi baterako kontratatutako langileen kopuruak, datu homogeneoei dagokienez, gainditu egiten duela indarreko araudiak onartzen duen behin-behinekotasunaren gehieneko ehunekoa. Datu horiek erakusten dute, halaber, beharrezkoa dela zenbait lanpostu berrantolatzea eta langileak hobeto banatzea.

Arazoei irtenbide bat bilatzeko, lehen ekintza gisa Estatuko Aurrekontu Orokorrek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertzen ari gara enplegu publikoaren eskaintzarik ahalik eta zabalena egiteko, egun hutsik dauden lanpostuak betetzeko eta, horrenbestez, Udaleko behin-behinekotasuna nabarmenki murrizteko aukera emango diguna.

Gero, lanpostuen balioespen bat egingo da, lanpostu bakoitzaren ordainsari osagarriak objektiboki modu egoki batean finkatu ahal izateko.

El Ayuntamiento, para poder desarrollar sus funciones de forma correcta, necesita dotarse de los medios personales adecuados que respondan de forma satisfactoria a los servicios que se prestan y a las demandas de la ciudadanía.

Por decisiones adoptadas en su día, en unos casos de carácter interno y en otros por los límites que en política de contratación de personal impuso durante el período de crisis el Gobierno en los Presupuestos Generales del Estado, al llegar al Gobierno Municipal, nos encontramos con una situación muy poco deseable en lo que al personal municipal se refiere.

Por otra parte, la jubilación de varias personas de la plantilla, el mal funcionamiento de algunos servicios, la creación de la Entidad Local Menor de Itziar, la necesidad de estudiar la situación de algunos patronatos y la modificación de algunas normas que afectan a la política de personal, nos ha obligado a realizar un estudio y diagnóstico de la plantilla para tomar las medidas que sean necesarias.

Unos primeros datos ya nos dicen que el número de funcionarios interinos y trabajadores contratados temporalmente por el Ayuntamiento de Deba supera, en términos homogéneos, el porcentaje máximo de temporalidad que permite la normativa vigente. También nos dicen que parece necesario hacer una reorganización de algunos puestos de trabajo y una mejor distribución de la plantilla.

Para poder solucionar los problemas, en una primera actuación estamos analizando las posibilidades que nos dan los Presupuestos Generales del Estado para hacer una oferta de empleo público lo más amplia posible, que permita cubrir las plazas actualmente vacantes y, en consecuencia, reducir de forma sustancial la temporalidad en el Ayuntamiento.

Posteriormente, se realizará una valoración de los puestos de trabajo, para establecer de forma adecuada las retribuciones complementarias de cada uno de los puestos de trabajo de forma objetiva.

# AGIRRE JAUREGIKO ALTZARIAK ERABERRITZEA

## RESTAURACIÓN DEL MOBILIARIO DEL PALACIO DE AGUIRRE



Duela urte batzuk Debako Udalak akordio bat sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, eta horren arabera, Udalak Agirre jauregiko antzinako altzariak garbitu ondoren, Gipuzkoako Aldundiak altzari horiek Gordailuko instalazioetan zaindu eta gordetzeko konpromisoa hartu zuen. Sinatutako akordio horren arabera, Debako Udalak urtero bere gain hartuko ditu altzari horietako bat eraberritzeko gastuak, hori egin ondoren Agirre jauregian berriro kokatu ahal izateko.

Bi altzari isabeldar eraberritzeko aurrekontua eskatu ondoren, hurrengo hiruhilekoan altzari horiek eraberritzen hasiko direla aurreikusten da.

Eraberritze-lan horiek Gordailuren instalazioetan egingo dira, eta urtea amaitu baino lehen altzari horiek beren jatorrizko lekuan kokatuta egotea espero da.

Hace ya un tiempo, el Ayuntamiento de Deba firmó un acuerdo con la Diputación Foral de Gipuzkoa por el que tras la limpieza por parte del Ayuntamiento de los antiguos muebles del palacio de Aguirre, la primera institución guipuzcoana se comprometía a la guarda y custodia del mobiliario en las instalaciones de "Gordailu". El acuerdo firmado exigía que cada año el Ayuntamiento de Deba corriese con los gastos de restauración de algún elemento mobiliar, para tras ello, ubicarlo de nuevo en el palacio de Aguirre.

Tras solicitar un presupuesto para la restauración de dos muebles isabelinos, se prevé que este próximo trimestre comience la restauración de dichos muebles.

La restauración tendrá lugar en las instalaciones de Gordailu y se espera que antes de finalizar el año éstos se encuentren ubicados en su lugar original.

# PRAILEAITZ HAITZULOA - CUEVA DE PRAILEAITZ




Orain berriki, **Praileaitz II** izenez ezagutzen den haitzuloan indusketa-kanpaina bat amaitu da.

Xabier Peñalver doktoreak gidatzen duen arkeologoen taldeak jakinarazi duenez, lortutako emaitzak garrantzi handikoak izan dira, eta duela 40.000 eta 120.000 urte bitarteko epealdian kokatzen diren lanabes litikoak aurkitu dituzte, baita, neanderthalen zein cromagnonen bizileku izan zela erakusten duten frogak ere.

Debako Udalak diru-laguntza bat eman nahi izan dio kanpaina horri, eta hala, 3.000 euroko ekarpena egin du.

En fechas recientes acaba de finalizar una campaña de excavación en la cueva conocida como **Praileaitz II**. Según informa el equipo de arqueólogos encabezado por el doctor Xabier Peñalver, los resultados de ésta han sido altamente satisfactorios, habiéndose hallado herramientas líticas datadas en un periodo de entre 40.000 y 120.000 años, así como evidencias de haber sido hábitat tanto de Neandertales como de Cromagnones.

El Ayuntamiento debarra ha colaborado económicamente en la campaña con una aportación de 3.000¤.

# DEBAKO UDALAK ETA ELKAR ARGITALETXEAK XII. TENE MUJIKA BEKARAKO DEIALDIA EGIN DUTE

## EL AYUNTAMIENTO DE DEBA Y LA EDITORIAL ELKAR CONVOCAN LA XIIª BECA TENE MUJIKA

Joan den ekainean, Debako Udalak **Tene Mujika** bekaren oinarriak argitaratu zituen. Aurtengoa XII. edizioa da eta, beste urte batzuetan bezala, Euskal Herriko historia hurbila ezagutzera emateko eta gure literatura aberasteko asmoarekin antolatu du Udalak beka hau, Elkar argitaletxearekin elkarlanean.

Proiektuak artxiboa@deba.eus helbidera bidali beharko dira 2017ko abenduaren 11 baino lehen.



El pasado mes de junio, el Ayuntamiento de Deba publicó las bases de la beca **Tene Mujika**. Esta es la XIIª edición, y como otros años, el Ayuntamiento ha organizado esta beca con el propósito de difundir la historia más reciente del País Vasco y enriquecer nuestra literatura con la colaboración de la editorial Elkar.

Los proyectos deberán emitirse a artxiboa@deba.eus antes del 11 de diciembre de 2017.

# "DEBA 100 HITZETAN" LEHIAKETARAKO OINARRIAK ARGITARATU DIRA

## PUBLICADAS LAS BASES DEL "DEBA EN 100 PALABRAS"

Joan den apirilean **"Deba 100 hitzetan"** IV. literatura-lehiaketaren oinarriak argitaratu zituen Udalak, Cárdenas Fundazioaren laguntzarekin. Idazlanek, beti bezala, ez dute 100 hitz baino gehiago izango eta euskaraz edo gaztelaniaz idatziak egon daitezke; era berean, zuzenean nahiz zeharka, Deba eta Mutriku elkartzen dituen harrizko zubiarekin zerikusia eduki beharko dute.

Aurreko urteetan bezala, 500 euroko bi lehen sari eta 200 euroko bi bigarren sari izango dira modalitate bakoitzean, euskaraz eta gaztelaniaz.



El pasado mes de abril el Ayuntamiento publicó las bases del IV concurso literario **"Deba en 100 palabras"**, patrocinado por la Fundación Cárdenas. Los trabajos, que como siempre no deberán superar las 100 palabras y podrán ser escritos en euskara o castellano, tendrán que estar relacionados directa o indirectamente con el puente de piedra que une Deba y Mutriku.

Como en años anteriores, habrá dos primeros premios de 500 euros y dos segundos de 200 euros en cada modalidad, euskara y castellano.

# Estalitako Pasealekua: azoka bat baino gehiago

## Debako I. Mural/Grafiti Lehiaketa

# Paseo Cubierto: algo más que un mercado

## I Certamen de Mural/Graffiti de Deba





Haitz-haundi Debako elkarte artistikoak aurten 25. urteurrena bete du. Hori ospatzeko, joan den udaberrian 4 horma-irudi egin eta Udalari eman zizkion, Estalitako Pasealekuan kokatzeko. Talde horrek proposaturik, halaber, Debako I. Mural/Grafiti Lehiaketa egin zen, eta finala aurtengo uztailaren 16an jokatu zen.

Gogoratuko duzuenez, finalean parte hartu zuten 4 finalistek bi fase igaro behar izan zituzten: lehenengoan, epaimahaiak bigarrenera igaroko ziren lanak aukeratu behar zituen. Hautatutako lanak zazpi izan ziren.

Zazpi lan hauek bigarren proba bat igaro behar izan zuten; oraingo honetan, herri-bozketa bidez hartu zuten sailkatuko zirenei buruzko epaia, eta hala lau lan hautatu zituzten; lan horiek uztailaren 16an jendaurrean gauzatu zituzten eta Maraca, Eneko, Willy eta Sortwo egileek sinatu zituzten.

Lau lan horiek goizeko 09:00etatik arratsaldeko 19:00etara egin zituzten, eta horretarako aukeratutako lekuak Plaza Zaharra, zumardia, Gurutze kalea eta Simon Berasaluze plazako lorategiak izan ziren.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu Haitz-haundi elkarteko kideei Debako herriarekin erakutsi duten jokaeragatik, eta bide batez, zorionak eman nahi dizkiegu beren 25. urteurrenagatik.

Zorionak Haitz-haundi!

La asociación de pintores de Deba Haitz-haundi ha cumplido este año su 25 aniversario. Para celebrarlo, la pasada primavera realizaron y donaron al pueblo 4 murales que fueron colocados en el Paseo Cubierto. También, a propuesta del grupo, se realizó el I Certamen de Mural/Graffiti de Deba, cuya final tuvo lugar el pasado 16 de julio.

Como se recordará, los 4 finalistas que intervinieron en la final lo hicieron tras pasar dos filtros: el primero, consistente en la selección por parte de un jurado de las obras que pasarían a una segunda fase. Las obras seleccionadas fueron siete.

Estas siete obras tuvieron que pasar un segundo filtro; esta vez el veredicto de clasificación se realizó mediante votación popular, siendo seleccionadas cuatro obras, cuya ejecución fue realizada ante el público el día 16 de julio y fueron firmadas por Maraca, Eneko, Willy y Sortwo.

La ejecución de las cuatro obras tuvo lugar desde las 09:00 hasta las 19:00 horas, y los lugares seleccionados para tal efecto fueron la Plaza Zaharra, la alameda, la calle de la Cruz y los jardines de la plaza Simón Berasaluce.

Desde aquí queremos agradecer a los miembros de la sociedad Haitz-haundi su gesto para con el pueblo de Deba, y a la vez felicitarles por su 25 aniversario.

¡Felicidades Haitz-haundi!

# ITZIARKO ENTITATE TXIKIARI ETA BERE ETORKIZUNARI BURUZ

## SOBRE LA ENTIDAD LOCAL MENOR Y SU FUTURO



2016ko maiatzeko 7. Deba-Berri aldizkarian, eta Itziarko Tokiko Entiate Txikiarekin loturik, artikuluaren ondorio gisa genioen gobernu-organo honen helburua “alde guztiontzat eta biztanleriarentzat onargarria den TET berri baten eratzea behin betirako ituntzea Itziarko TETeko auzo batzordearekin eta, honela, gehiegi luzatu den arazo honi amaiera ematea. Akordioa ezinezkoa balitz zentzuzko epe baten barruan egungo Itziarko TET aldatzeko prozedura berri bat irekitzera behartuta egongo ginateke... eta martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 32. artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz, hauxe baitio: Udalez Azpiko Erakundeak aldatzeko nahiz ezabatzeko, eraketarako ezarritako prozedura bera segituko da.

Hau da, Udalbatzaren gehiengo absolutuaren aldeko botoekin ekingo zaio prozedurari, eta egungo Udal Gobernuaren esku dago gehiengo hori”.

En la revista Deba-Berri número 7 de mayo de 2016 y en relación con la Entidad Local Menor de Itziar y como conclusión del artículo, decíamos que la intención de este órgano de gobierno era la de “abordar una negociación con la Junta Vecinal de la ELM de Itziar para acordar de forma definitiva la constitución de una nueva ELM que satisfaga a todas las partes y al conjunto de la ciudadanía y que, de paso, resuelva el problema que lleva enquistado demasiado tiempo. En el caso de que no sea posible un acuerdo en un tiempo prudencial, nos veremos obligados a iniciar el procedimiento... y de acuerdo con lo que establece el artículo 32 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo y que dice: En la modificación o disolución de las Entidades Locales Menores se seguirá el mismo procedimiento establecido para su constitución.

Es decir, se iniciará el procedimiento con los votos favorables de la mayoría absoluta de la Corporación, mayoría que ostenta el Gobierno Municipal actual”.

Orduz geroztik, etengabe saiatu gara akordio batzuetara iristen, arestian adierazi dugun hori bete ahal izateko helburuarekin.

Izan ere, dagoeneko zenbait bilera egin ditugu Itziarko Entitate Txikiko ordezkariekin, betiere gobernu-organo honen ekimenez. Epe horretan, alde batetik, bi erakunde hauen (Debako Udalaren eta Itziarko TET) arteko harremanak arautzeko oinarri gisa balio izango lukeen hitzarmen baten inguruko akordio batera iristen ahalegindu gara, eta bestetik, egungo entitatea aldatzea proposatu dugu, lurraldearen aldaketa batean oinarritua, denok dakigun bezala horixe baita funtsezko auzia eta elementu bereizlea.

Hitzarmenari dagokionez esan behar dugu negoziazioak ez zirela ondo amaitu, Itziarko TETak ez zituelako artikuluetako batzuk onartu nahi izan, eta gobernu-organo honen iritziz artikulu horien edukia funtsezkoa zen udalaren xedapenak eta administrazio mailakoak bete ahal izateko.

Jokabide horren aurrean, Debako Udal Batzarrak, bi erakundeon harremanetarako joku-arau batzuk finkatzea benetan ezinbestekoa zela sinetsirik, 2017ko martxoaren 30ean dokumentu bat onetsi zuen, ondorengo izenburu honekin:

“ESKUMENEN ERREGIMENARI BURUZKO ARAUDIA ETA HORIEK FINANTZATZEKO AKORDIO EKONOMIKOA DEBAKO UDALAREN ETA ITZIARKO TETaren ARTEAN”.

Desde entonces, ha sido una constante por nuestra parte el deseo de llegar a acuerdos con el objetivo de dar cumplimiento a lo que hemos indicado anteriormente.

Efectivamente, hemos tenido varias reuniones, siempre a iniciativa de este órgano de gobierno, con representantes de la ELM de Itziar. Durante este tiempo, se ha tratado, por un lado, de llegar a un acuerdo sobre un convenio que sirviera de base para regular las relaciones entre ambas entidades (Ayuntamiento de Deba y ELM de Itziar), y de otro, se ha planteado la modificación de la actual entidad local, basada en una modificación de la territorialidad, que como de todos es conocido es la cuestión básica y elemento diferenciador.

En relación con el convenio hemos de decir que las negociaciones no se llevaron a buen término, por la postura de la Entidad Local Menor de no aceptar algunos artículos, cuyos contenidos este órgano de gobierno interpretaba como básicos para el cumplimientos de las disposiciones municipales y administrativas.

Ante esta actitud, el pleno del Ayuntamiento de Deba, y considerando que verdaderamente se precisaba del establecimiento de unas reglas de juego para las relaciones entre ambas entidades, con fecha del 30 de marzo de 2017, se aprobó un documento titulado:

“REGULACION DEL RÉGIMEN DE COMPETENCIAS Y ACUERDO ECONÓMICO PARA FINANCIARLAS ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DEBA Y LA ENTIDAD LOCAL MENOR DE ITZIAR”.





Lurraldetasunari dagokionez, 2017ko maiatzaren 16an, agiri bat bidali zitzaion Itziarko Herritarren Batzordeko auzo-alkateari, eta bertan, zenbait ohar egitearekin batera, hitzez hitz ondokoa zioen proposamena helarazi zitzaion:

**“Laburbilduz, Itziarko egungo entitate txikia aldatzea proposatzen dugu eta, horren ordez, Itziar-Itsaspe lurralde-eremua hartuko duen TET bat eratzea, eta hori izan dadila Mardari, Elorriaga, Egia, Arbizkoa, Arriola, Endoia eta Lastur auzoen kudeatzailea eta erantzulea, baina administrazio-egoera berri horretan osotasun horrek ez luke inolako eragin ekonomikorik jasango.**

**Oinarrizko printzipio honekin ados egonez gero, hori aurrera eramateko prozesu guztia, berme juridikoak eta abar elkarrekin landu beharko genituzke”**.

Elkarrekin ados jarrita, epe bat finkatu zuten, Herritarren Batzordeak erantzun bat eman ziezaion egindako proposamenari.

2017ko ekainaren 9an, horri buruzko erantzuna jaso genuen, eta argi eta garbi adierazi zuten ez zeudela inola ere ados egindako proposamenarekin, eta egungo egoerari bere horretan eusteko borondatea berretsi zuten.

Azken batean, lurraldetasunaren auzia ez delako erantzun horretan argitzen, TETa aldatzeko nahiz ezabatzeko prozedura arautzen duen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Dekretuaren 32. artikuluan aurreikusitako prozedura abiaraziko du gobernu-organo honek.

En cuanto al tema de la territorialidad, con fecha del 16 de mayo de 2017, se envío un documento al Sr. Alcalde pedáneo de la Junta Vecinal de Itziar, en el que tras diversas consideraciones se les trasladaba la propuesta que literalmente, decía:

**“Resumiendo, planteamos la modificación de la actual ELM de Itziar a una ELM con ámbito territorial de Itziar-Itsaspe, y que sea ésta la gestora y responsable de los barrios de Mardari, Elorriaga, Egia, Arbizkoa, Arriola, Endoia y Lastur, sin que todo el conjunto en la nueva situación administrativa sea afectada económicamente.**

**Si se está de acuerdo con este principio básico, habría que elaborar conjuntamente todo el proceso para llevarlo a cabo, garantías jurídicas, etc”.**

De común acuerdo se fijó un plazo para que, por parte de la Junta Vecinal, se diera una respuesta a la propuesta formulada.

Con fecha de 9 de junio de 2017 se recibió la correspondiente contestación, que de manera rotunda manifestaba no estar de acuerdo con la propuesta realizada, y reiteraban su voluntad de mantener la situación actual.

En definitiva, y a nuestro entender, puesto que la cuestión de la territorialidad no queda resuelta con su contestación, este órgano de gobierno va a iniciar el procedimiento previsto en el artículo 32 del Decreto Foral 2/2003 de 17 de marzo, que regula el procedimiento para la modificación o disolución de la ELM.


CAMPING ITXASPE
Gipuzkoako Turismo Berrikuntza Saria 2017
Premio a la Innovación Turística en Gipuzkoa 2017.
Zorionak!!
DEBAKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa